



**Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa. Horren bidez, Gipuzkoako Abokatu Elkargoari gomendatzen zaio diziplinazko erantzukizunaren arloko kexen kudeaketarako zenbait irizpide aplikatu dezala, haren doako laguntza juridikoaren onuradun batek bere abokatuari jarritako salaketa gaizki izapidetzeagatik, aurkeztutako kexa baten harira.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek, 2006ko irailaren 21ean, idazki bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Abokatu Elkargoaren aurrean, defendatzeko esleitu zitzaion abokatuaren lanaz argibideak eska zitzaizkien. Pertsona hori doako justiziaren onuraduna zen, zirkulazio istripu batean kamioi baten zama haren baratzean erortzean sortutako kalte-galerak zirela eta egindako erreklamazio batean. Abokatuari egozten zion akzioaren preskripzio epea igarotzen utzi izana, zegokion auzi-eskea aurkeztu gabe eta, halaber, horren berri eman ez izana. Horrenbestez, pertsona horren arabera, ez zuen jakin auziak bazeramala denbora artxibaturik, harik eta, berririk ezean, auzitegira galdetzeraz pertsonalki joan zen arte; hartara, artxibatzearen aurka errekurtsio jartzeko aukera ere galdua zuen.

Erreklamaziogileak, horregatik guztiagatik, abokatuari hauek egozten zizkion:

- *"...auzi bateko abokatu defentsariari ez dagokion jokabidea izan du nire auzian.*
- *Hain du jokatu zabarkeriaz eta ezaxolaz, non eskumena duen agintaritzak haren kargu utzitako auzia preskribatzen utzi baitu, aintzat hartu gabe ez agintaritzaren agindua ez bere esku utzitako bezeroa.*
- *Erabateko defentsa gabezia utzi naute eta, nire depresioa eta etsipena areagotu egin dira"*

Idazkiaren bukaeran, elkargoari arren eskatzen zion abokatu horren *"lanaren gaineko argibideak eska"* zitzala; halaber, horrek guztiak eraginiko kaltea berdintzeko ordain ekonomiko bat eskatzen zuen.

2. Elkargoan, 2007ko urtarrilaren 22an, gutuna bidali zion erreklamaziogileari, eta, betebeharrak ez betetzeagatik eginiko salaketa aipatu gabe, abokatuaren aurkako erantzukizun zibileko erreklamazioa artxibatzen zela baino ez zion jakinarazi. Artxibatzearen arrazoitzat ematen zen, elkargoak abokatuari idazkia bidali eta gero, auzia bere arbitrajearen pean utzi zezala eskatzeko, abokatuak ez zuela erantzun.





3. Salaketa tratatzeko modua zela bide, Arartekoaren aurrean 2007ko uztailaren 2an kexa aurkeztu eta gero, erakunde honek elkargoari zuzendu zitzaion 2007ko uztailaren 20an gure irizpidea azaltze aldera. Beste espediente batzuen harira ere eman genuen irizpidearen arabera, herritarrek abokatuen jokabide profesionalari buruz aurkezten dituzten kexak, erantzukizun zibilarren ikuspegitik ez ezik, deontologiaren ikuspegitik ere aztertu behar dira. Halaber, nabarmendu genuen ezen, bestalde, erreklamaziogileak 2006ko irailaren 21ean aurkeztutako idazkiak zalantzarik gabe adierazten zirela kexaren bi alderdiak. Horregatik, azkenik, aditzera eman genuen, aztergai den kasuan horrela jokatu izan ezean, horren inguruan informazio eginbideak egitea komeniko zela, diziplina espedienterik abiarazi behar ote zen erabakitzeko.
  
4. Arartekoaren izapide horren ildotik, elkargoak aurretiazko informazioko prozesua abiarazi zuen, eta 2007ko urriaren 22an bidalitako jakinarazpen baten bidez adierazi zigun haren Deontologia Batzordeak izapidetan ziharduela zalantzan jarritako esku-hartze profesionala zehatzago balioztatze aldera. Egun berean, zegokion abokatuari salaketaren berri eman zitzaion, eta berak bere alegazioak aurkeztu zituen 2007ko azaroaren 19ko idazki baten bidez.

Abokatuak idazkian aditzera eman zuenaren arabera, berak ez zuen, egiaz, kaltegaleren auzi-eskea aurkeztu aztergai den kasuan, haren aburuz bezeroak aurkezturiko agiriak ez zirelako aski bezero horren trauma ondoko depresioaren eta kamioi istripuaren arteko kausaltasun lotura justifikatzeko, eta, hortaz, erreklamazioak ongi ateratzeko gutxieneko aukerak ez zituela iritzi ziolako. Era berean, adierazi zuenez, horretarako eskatutako agiri medikoak bezeroak noiz bidaliko alferrik itxaroten zituen bitartean, eta akzio zibilak preskriba ez zezan — eginbide penalak 2001eko abenduaren 12an artxibatu zituzten—, 2002ko abenduaren 2an adiskidetze ekitaldirako eskea egin zuela (ekitaldi hori Donostiako Lehen Auzialdiko 5. auzitegiaren aurrean egin zen 2003ko urtarrilaren 15ean, abenikorik gabe), eta 2004ko urtarrilaren 13an, helburu berarekin, gutun bana bidali ziela kamioiaren aseguru etxeei, erreklamazioa berriz ere eginda. Azkenik, dioenez, data horretaz geroztik ez zuen beste izapiderik egin, lehen aipatutako arrazoiengatik.

Alegazioekin batera, abokatuak azaldutako izapideak egiaz egin zituela egiaztatzen zuten agiriak aurkeztu ziren. Agirion artean adiskidetze ekitaldiaren eskearen kopia zegoen: aseguru etxeei kamioiak bere gain hartutako erantzukizun zibila erreklamatu zien, kamio horrek eragindako kalteak 4.290,18 eurotan zenbatetsita, bi azalpen zirela medio: batetik, 1.000 euro baratzeak eta txabolak izaniko kalteengatik; bestetik, 3.290,18 euro bezeroaren arabera istripuaren ondorioz nozitzen duen trauma ondoko depresio sindromeagatik.





5. Gobernu Batzarrak, elkargoko Deontologia Batzordeak hala proposatuta, erabaki zuen ez zela egokia abokatuaren aurkako diziiplina prozedurarik abiaraztea, ez baitzegoen deontologiazko arau-hausterik egin izanaren zantzurik. Haren aburuz, abokatuak bere zeregin profesionala aurrera eraman egin zuen; izan ere, eskatutako informazioa ematerakoan bezeroak erakutsi zuen pasibotasunaren aurrean, Instrukzioko Epaitegiari bide penalean bideratutakoaren ikustaldia eskatu zuen, eta adiskidetze ekitaldia egiteko errekurtsioa jarri zuen, egin zitekeen akzioak ez preskribatzeko, eta, azkenik, erreklamazio judiziala egitetik atzera egin zuen, bezeroari auzi-eskea bermatzeko txosten medikoak hainbat aldiz eskatu eta gero, eskuratutakoak aski ez zirela iritzi ziolako. Gobernu Batzarraren ebazpenean, gainera, aditzera ematen da, jarduera profesional hori deontologiazko arau-haustea izanik ere, preskribatuta zegoela, eta, horregatik, bideratutakoa artxibatzeke agintzen du.
  
6. Erabaki hori ikusita, Arartekoa berriz ere elkargoari zuzendu, eta kasuaren espedientearen kopia eskatu zion; izan ere, nahiz eta deontologiaren aldetik egon zitezkeen erantzukizunak preskribatuta egon, igarotako denboraren ondorioz, elkargoak kexa kudeatzeko moduari buruzko bi alderdi argitu behar ziren.
  - Batetik, eta elkargoaren ebazpeneko lehen aurrekarian oker adierazten den ez bezala, abokatuaren aurka aurkezturiko salaketa ez zen kalte ordain ekonomikoa eskatzekoa bakarrik; aitzitik, hasiera-hasieratik zegoen argi haren eduki deontologikoa. Ondorioz, zitekeena zen elkargoak diziplinaren arloko ikerketa abiarazteko behar izan zuen denbora bateraezina izatea administrazio onaren printzipioekin.
  - Bestalde, preskribatzea ez zen artxibatzeke ematen zen arrazoi bakarra; hain zuzen, horrez gain, zalantzan jarritako jarduera beti zuzena izan zela finkatu zen, abokatuak, bere ahaleginengatik ere, azkenean erabaki baitzuen eskuratu zitzaizkion agiri medikoak ez zirela aski auzi-eskea funtsatzeko. Dena dela, funtsik ez izate hori, nahitaez, Doako Justiziaren Batzordeak erabaki behar du, legez araututako prozedura baten bitartez. Prozedura horren arabera, Fiskaltzak eta Abokatu Elkargoak ere esku hartu behar dute. Hala eta guztiz ere, Batzarraren ebazpenak ez zuen horren inguruan betetako prozeduraren berri ematen, eta ez zuen azaltzen, salaturiko abokatuaren iritziaz gain, zer arrazoiengatik onartzen zuen batzordeak esku arteko frogabideak egiaz ez zirela aski auzi-eskea funtsatzeko.





7. Espedientea jaso, eta egiaztatu genuen, batetik, akziorako funtsik eza erabakitzeke legezko izapidearen inguruan ez zegoela batere informaziorik eta, bestetik, espediente osoan ez zegoela inolako azalpenik erreklamaziogilearen baratzean izaniko kalte materialengatik erreklamazio judizialik ez egiteko; hain zuzen ere, azken horren frogabideak ez zuen zerikusirik agiri medikoak aski ez izatearekin, hots, artxibatzeke erabakiaren arabera, abokatuari auzi-eskearen funtsik eza erabakiarazi zion arrazoiarekin. Abokatuak ere ez zuen gai hori aipatu bere alegazioetan, nahiz eta erreklamaziogileak berariaz aipatzen duen bere salaketan.

Ondorioz, 2008ko uztailaren 7an, Arartekoa berriz ere zuzendu egin behar izan zitzaion elkargoari, idazki baten bidez, bi arazo horiei buruz ohartarazteko. Honela bukatzen zen delako idazkia:

*“Ikus daitekeenez, azaldu ditudan bi puntuak elkargoak aurrera eramandako kudeaketari dagozkion, eta ezinbestez argitu behar dira, korporazioaren jardueran hobetu beharreko alderdiak, halakorik egonez gero, zein diren zehaztu ahal izateko, doako laguntza juridikoaren zerbitzuaren kalitatea zaintzeari dagokionez. Hartara, horren ondorioetarako, ez du garrantzirik salatutako abokatuaren diziplinazko balizko erantzukizunak preskribatuta egoteak.*

*Erakunde hau sortu eta arautzeko 1985eko otsailaren 27ko 3/85 Legeko 23. artikuluan xedaturik dago Arartekoak eskatutako "agiri, txosten edo azalpen guztiak lehentasunez eta premia eman behar" dituztela, EAEko administrazio guztiak. Manu horren ildotik, arren eskatzen dizut, —hogei eguneko epean— aurkezten dizkizun bi gaien inguruko informazioa, hain zuzen, eman diezaguzula”.*

8. Era berean, Gipuzkoako Doako Justiziaren Batzordeari eskatu genion azal ziezagula ea salatutako abokatuari defendatzeko esleitu zitzaion uziaren funtsik eza haren aurrean izapidetu zen, eta delako erakundeak erantzun zigun, espedientea ikusi eta gero, abokatu horrek ez zuela funtsik ezari buruzko idazkirik aurkeztu batzordearen aurrean, legez ezarritako epeetan.
9. Elkargoak, bestalde, ez zion erantzun guk egindako informazio eskaerari, eta, hortaz, 2008ko urriaren 2an erakunde honek errekerimendua bidali zion. Hil berak 15 zituela erantzun zuen, elkargoko dekanoren gutun baten bidez. Aditzera eman zuenez, ez zuen ordu arte erantzun Arartekoaren uztailaren 7ko gutunak ez ziolako datu edo txosten gehiagorik eskatzen, salatutako abokatuaren aurka diziplina prozedurarik ez abiaraztea erabaki zuen Gobernu Batzarraren ebazpenari





buruz iritzi juridikoak ematera mugatzen zelarik. Jarraian adierazten zuen ezen, preskripzioa ofizioz aurkituta, preskribatutzat jotzeak jokabide horri deontologiaren aldetik gaitzespenik egin behar zaion ala ez ikertzetik salbuesten duela. Halaber, aditzera ematen zuen ezen *“abokatu elkargo honetako Gobernu Batzarrak, deontologiako ebazpenetan, bere aburua bere irizpide zintzoarekin bat eratzen duela, Doako Justiziaren Batzordeari alde aurretik txostenik eskatzea nahitaezkoa izan gabe”*; bukatzeko, azaldu zuen ezen, lanbide elkargoetako kideen diziplinazko erantzukizuna exijitzeari dagokionez, akzio publikorik egiterik ez dagoenez, korporazio publikoak berak baino ez duela akzio hori sustatu edo exijitzeko eskumena, nahiz eta kide horien jardunak kaltetukoek, bestalde, erantzukizun zibil edo penala balia dezaketen, betiere.

10. Erantzun hori ikusita, informazio eskaera ez zela berriz egin behar iritzi genion, eta gure esku-hartzeari amaiera ematea erabaki genuen, ondorio idazki hau eginda, ondorengo gogoeta hauetan oinarrituta:

### Gogoetak

1. Oroz gaineratik, eta gure esku-hartzearen zenbaterainokoa eta zentzua mugatze aldera, aditzera eman behar dugu ez dela gure eginkizuna elkargoek, deontologia kodeen ildotik, beren aurrean salatutako profesionalen jarduerari buruz egiten dituzten balioztapenak berraztertzea. Bada gure eginkizuna, ostera, salaketa horiek arduraz eta legeak ezarritako prozedura betez azter daitezzen, eta, legeak agintzen duenez, haiei buruzko ebazpenek erantzun oinarriduna eman diezaieten salaketa horiek aurkeztutako gai guztiei.

Horrela, Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoaren erabiltzaileentzat zerbitzu horretan parte hartzen duten profesionalak biltzen dituzten korporazioek berme eginkizuna bete behar dutelarik, eginkizun horren funtsezko alderdi bat sostengatu nahi da. Hain zuzen ere, elkargokideen jardura deontologiaren aldetik kontrolatzea haien parekoen esku uztean, legearen abiapuntua da azken horiek direla interes handiena dutenak jardura hori *lex artis* delakoarekin bat gauza dadin, Administrazio publikoekin dituzten harremanetan, herritarren eskubide eta interes legitimoak babesteko sorturiko erakundeek ere, hala nola Arartekoak, duten helburu bat.

Horrexegatik, kezkarria da, gure aburuz, Gipuzkoako Abokatu Elkargoak lankidetzan aritzeko gure azken eskaerari erantzutean hartzen duen irizpidea, baieztatzen duenean korporazioak baino ezin susta edo exiji dezakeela bere kideen diziplinazko erantzukizuna, eta dioenean elkargoko Gobernu Batzordeak bere



irizpide zintzoaren arabera erabakitzen duela, Doako Justiziaren Batzordeari txostenik eskatu behar izan gabe. Horrela adierazirik, baieztapen horiek indargabetu egiten dituzte ordenamenduak —abokatuen jardueraren eremuan, oro har, eta doako justiziaren eremuan, bereziki— epaitegi eta auzitegien erabiltzaileen eskubideak egiaz gauzatzea bermatzeko baliatu nahi dituen kontroletako batzuk. Ondorioz, legeak eremu horretan Arartekoari esleitzen dizkion zereginak direla eta, espediente hau eragin duen kasu partikularretik harago, garrantzizko zehaztapenak egin behar ditugu. Beti ere, ez da ahaztu behar erakunde honen xede nagusia, ikuskatzea baino gehiago, gainbegiratzen ditugun erakundeekin lankidetzan aritzea dela, egon daitezkeen hutsak zuzendu eta prozesuak hobetzeko helburu erkidea erdieste aldera

Lehenik eta behin, zehaztu behar da lanbide elkargoak, Zuzenbide Publikoko korporazioak diren aldetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen mende daudela, lege horretako 2. artikuluan xedatuta dagoenez. Elkargoek aztergai dugun erabakiaren motako erabakiak hartzea araudi horren mende daudela badago ezarrita, gainera, EAEko azaroaren 21eko 18/1997 Legeko (tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa) 48. artikuluan eta Gipuzkoako Abokatu Elkarteko Estatutuetan —hain zuzen ere, EAEko aipatutako legeko 19.5 artikulua estatutu horietara bideratzen du—, eta hori berariaz jasota dago lege horretako 19.2 artikuluan, diziplinari dagokionez. Aipatu ditugun bi legeek elementu arautuak sartzen dituzte erreklamazioari dagokion elkargo jardueran, eta elementu horiek garrantzitsuak dira ea elkargoak bere ebazpenean ebatzi beharreko alderdi guztiei buruzko erantzuna ematen duen ala ez balioztatzean, bai eta preskripzioaren gaian ere; azken horri dagokionez, bestalde, aipatutako estatutuetako 99. artikulua Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea bideratzen du.

Aztergai dugun kasu zehatzean, elkargoen ahalmenen izaera arautuak salatu den abokatu jardueraren deontologiazko balioztapenari berari ere eragiten dio, preskripziorik gertatu zein ez, jakinda zein den elkargoak oinarritzat hartzen duen arrazoa, auzi-eskea ez egin arren salatutako abokatuak bere zeregin profesionala bete zuela erabakitzeke. Arrazoi hori da, hain zuzen ere, hori egitetik salbuetsita egotea, uziaren funtsik eza zela kausa, eta horrek eragozten du elkargoaren askatasuna puntu horretan erabatekoa dela onartzea: doako justiziaren onura arautzen duen legean araututako prozedura baten bidez baino ezin egin daiteke halako salbuespena, eta, horrenbestez, lege horrexetako xedapenek zehazten dute, nahitaez, zer esparrutan erabil dezakeen elkargoak bere irizpide zintzoa gai horren inguruan.





Azkenik, ezin etor daiteke bat dekanoaren 2008ko urriaren 15eko idazkian baieztatzen denean elkargoak baino ez duela eskumena abokatuen diziplinazko erantzukizunaren akzioa sustatzeari ekiteko. Gogorarazi behar da ekimen hori ez dela nahasi behar diziplina ahalmenarekin; azken hori bai dagokiola bakar-bakarrik korporazioari (EAEko Profesionalen Elkargoei buruzko 18/1997 Legeko 19.3 eta 24 d) artikulua). Hala dago jasota Gipuzkoako Abokatu Elkargoaren estatutueta 61.2 g), 92.1 artikuluetan; gainera, 101.1 artikuluan, Batzarrari bakar-bakarrik ematen zaio zigor espedienteak abiarazteari buruzko erabakiak hartzeko zeregina. Baina, hala ere, 103.1 artikuluan kide baten aurkako diziplinazko prozedurak abiarazteko bideak arautzean, interes legitimoa duen hirugarren baten salaketa berriaz jasotzen da, besteak beste. Estatutueta 105.3 artikulua araber, litzateke abokatuaren jardura profesionalak kaltetu egin duela alegatzen duen bezero batena litzateke kasu hori. Agerikoa da, hartara, elkargoaren estatutuak bere onartzen dutela erabiltzaileak izan dezakeela ekimena diziplinazko prozedura abiarazteko —instruktorearen proposamenak ikusi eta gero, Batzarrak har ditzakeen erabakiak gorabehera, diziplina espedientea abiaraztea dela zein, lehen azterketa egin eta gero, kasua artxibatzea dela—.

2. Ondoren, preskripzioaren gaiari helduko diogu. Gipuzkoako Abokatu Elkargoaren Estatutueta 94.2 artikuluan ezarritako irizpideak aplikagarriak direla irizten zaion edo ez, salaketan jasotako jokabidea, frogatuz gero, 94.1 artikuluko f) eta h) idatz zatietako arau-hauste *oso larria* edo 95.1 a) artikuluko arau-hauste *larria* litzateke. Halakoek, EAEko Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 18.1 artikulua araber, hiru urtera edo bi urtera preskribatzen dute, hurrenez hurren.

Ustezko arau-haustea egin zen, halakorik egin baldin bazen, istripuko kamioiaren aseguru etxeen aurka abiarazitako erantzukizun zibileko akzioak preskribatu zuenean, eta Kode Zibileko 1968.2 eta 1973. artikuluei jarraituz, hori gertatu zen aseguru etxe horiek eragindako kalteen epaiz kanpoko azken erreklamazioa jaso zutenetik urtebetera. Horren araber, preskripzioak 2008ko urtarrilean gauzatuko zuen diziplinazko erantzukizuna amaitzeko ondorioa, baldin arau-haustea oso larritzat hartzen bazen, eta 2007ko urtarrilean, larritzat joz gero. Ondorioz, eta kontuan izanik bai gertakizunetatik igarotako denbora bai abokatuari ezin egotzizko kausengatik prozedura geldirik egon den aldiak, egitasun maila berarekin esan daiteke diziplinazko erantzukizuna —halakorik egon bazen— preskribaturik zegoela nahiz ez zegoela 2006ko irailean, salaketa jarri zenean, hain zuzen.





Une horretaz geroztik, Gipuzkoako Abokatu Elkargoak urtebete baino gehiago igaro zedin utzi zuen izapiderik egin gabe delako salaketak deontologiaren aldetik agertzen zuen kexaren inguruan. Azkenik, izapidetzen hasi zen, Arartekoak hala eskaturik, 2007ko urrian. Gure aburuz, bi arrazoi daude salaketa hori, erantzukizun zibilaren erreklamazio hustzat hartua, hasieratik betebeharrak profesionalak —ustez— bete ez izanaren ikuspegitik ere aztertu behar zela pentsatzeko:

- Batetik, salaketan hitzez hitz esaten zenaren arabera, garbi zegoen salaketa horrek bi alderdi zituela, aurrekarien ataleko lehen puntuan argi jasotzen denez.
- Bestalde, gure ustez, abokatuaren jokabide profesionalari buruzko kexei, oro har, bi ikuspegietatik erantzun behar zaie, herritarrek beren idazkietan hori berariaz eskatu zein ez. *Lex artis* delakoa urratu izanaren salaketa Abokatuaren aurrean erantzukizun zibila eskatzearen oinarria den neurrian, eta elkargoak, horrenbestez, salaketa hori aztertu ahal eta behar izan zuen, erreklamazioaren edukia ezagutu eta gero. Irizpide hori agertzeko aukera izan genuen Bizkaiko Abokatu Elkargoari egin genion apirilaren 11ko 50/97 gomendioan ere (1253/1996/21 espedientea, 1998ko Eusko Legebiltzarrarentzako Arartekoaren txosteneko 232. orrialdean kontsulta daiteke, euskaraz).

Elkargoak, hortaz, bi gaien inguruko ebazpena emateko betebeharra zuen, 30/1992 Legeko 89.1 eta 89.2 artikuluetan ebazpenen edukiei buruz eta eginiko eskaerekin bat etorri behar izateari buruz xedatutakoari jarraituz. Hori egitean atzeratzeak, justifikaziorik ez izateaz gain, egon zitezkeen diziplinazko erantzukizunek preskriba zezaten eragin zuen, lehen azaldu zen eran.

Kontuan harturik preskripzio horrek erantzukizunari amaiera ematen diola (hori ez dugu inoiz zalantzan jarri), lortzen den ondorioa da salatutako jardueraren profesionalaren kontrola, praktikan, ezerezean geratu zela, kontrol hori egitea bere gain duen erakundeak berak behar bezala ez jardutearen ondorioz. Gure betebeharra da hori agerian jartzea, huts hori berriz ere etorkizunean ez gertatzen laguntzeko xedarekin.

3. Salaketa artxibatu zuen elkargoaren 2008ko apirilaren 7ko erabakian preskripzioa aipatzen da, bai eta dekanoren urte bereko urriaren 15eko idazkian ere, preskribatutzat jotzeak jokabide horri deontologiaren aldetik gaitzespenik egin behar zaion ala ez ikertzetik salbuesten duela esaten denean. Dena dela,





praktikan, elkargoaren ebazpenak, preskripziorik egon zein ez, balioztatu egiten du salatzailearen baieztapena, —abokatuak bere zeregina profesionaltasunaz bete ez zuela, alegia—, baietz, profesionaltasunez jardun zuela ondorioztatzen duelako.

Ondorio hauetako lehenean aditzera eman dugunez, Batzarrak ahalmen osoa luke salatutakoak horren inguruan helarazi zizkien azalpenak sinesgarritzat jotzeko, kasu honen alderdi partikular batengatik ez balitz: azalpen horien *leit motiva*, bai eta azalpenok ontzat ematen duen erabakiarena ere, araututako kontzeptu bat da, uziaren funtsik eza, alegia. Hura aintzat hartzeko bide bakarra legean berariaz ezarritako prozedura bat da; prozedura horren azken helburua, ondoren azalduko dugunez, doako justiziaren zerbitzuaren kalitate kontrola bermatzea baino ez da. Erakunde honek, beraz, ziurtatu behar du Batzarraren balioztapenak betiere errespetatzen dituzten ordenamenduak, ikuspegi bikoitz batetik, berme hori zaintze aldera jartzen dituen mugak:

- Batetik, aurkeztutako salaketa artxibatzea erabakitzeko 2008ko apirilaren 7ko ebazpenak salaketa horrek aurkezten zituen gai guztien gainean erabaki behar zuen —bai eta eratortzen zirenen gainean ere, hala gertatuz gero—, lehen aipatutako 30/92 Legeko 89.1 artikularekin bat. Halako erabakiak, lege gorputz horretako 89.3 artikularen arabera, behar bezala arrazoitu behar dira, gainera; eskakizun hori, gure aburuz, administrazio on ororen funtsezko elementua da, eskumenekotasunaren eta arbitrariotasunaren arteko bereizlea izaki. 30/1992 Legeko 3.5 artikuluan jasotako gardentasun printzipioaren funtsezko osagaia da, eta haren zenbaterainokoa herritarrentzako zerbitzuaren irizpideari jarraituz (lege gorputz bereko 3.2 artikulua) kontuan hartu behar da.
- Bestalde, epaitegi baten aurrean uzi bat defendatzeko abokatu bat ofiziozko txandan esleitzen denean, azkenean dagokion auzi-eskea ez aurkeztea ez da, berez, deontologiazko arau-hauste bat, baldin eta horren arrazoa bada —adiskidetzea lortzen den kasuez gain— eske hori bideragarria ez dela. Nolanahi ere, ondorio horietarako, ezinbestekoa da bideragarritasun falta hori abokatuak duen iritzia arabera bakarrik ez erabakitzea; aitzitik, bera ez den instantzia batek aztertu eta berretsi behar du, bestela ez legokeelako bermaturik ofiziozko laguntza juridikoa, laguntza hori emateaz arduratzen den profesionalaren borondatearen mende legokeelako, praktikan.

Arrazoi horixe dela medio, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeko 32. eta 33. artikuluetan zehaztu egiten da lege bereko 23. artikuluan abokatuei beren lana egiteko ematen zaizkien irizpide askatasun eta independentzia. Izan ere, bi artikuluetan, abokatuak defentsa bere gain

hartu behar dutela xedatuta dago, uziaren funtsik eza alegatu ezean, sei eguneko epean, Doako Justiziaren Batzordearen aurrean; batzorde horrek horren gaineko erabakia hartuko du, Abokatu Elkargoak —eta, hala badagokio, Fiskaltzak— beren irizpena eman eta gero:

**32. artikulua.-** *Prozesu baterako esleitutako abokatuak baldin baderitzo baliatu nahi den uziak funtsik ez duela, esleitu ondorengo sei egunen barruan, Doako Laguntzaren Batzordeari eman beharko dio horren berri, bere erabakia oinarritzeko dituen arrazoi juridikoak azalduta. Epe hori igaro eta gero, jakinarazpen hori ez bada egiten, edo abokatuak epea eteteko eskatzen ez badu, uzia balioztatzeko agiriak falta dituelako, abokatu horrek nahitaez bere gain hartu beharko du defentsa hori.*

**33. artikulua.-** *Izapidetzea.*

**1.** *Aurreko artikuluan jasotako epe-etena, agirien faltaz, eskatzen denean, batzordeak gehienez hamar eguneko emea emango dio interesdunari agiri horiek aurkezteko.*

*Baldin epea igarotzen bada interesdunak direlako agiriak aurkeztu gabe, batzordeak eskaera artxibatuko du. Baldin agiriak aurkezten badira, agiri horiek abokatuari helaraziko zaizkio, eta uziaren bideragarritasuna aztertzeke epea berrasiko da.*

*Batzordearen aburuz, eskaeraren unean, abokatuak esku artean dituen agiriak uzi nagusiaren bideragarritasuna aztertzeke aski baldin badira, batzorde horrek ez du eteteko eskaera onartuko, eta etetea onartzen ez dela jakinarazten den unetik berrasiko da funtsik eza formulatzeko epea.*

**2.** *Uziaren funtsik eza formulaturik, batzordeak Abokatu Elkargoari bideragarritasunaren inguruko irizpena eskatuko dio, eta azken horrek 15 eguneko epean eman beharko du irizpena. Era berean, Fiskaltzaren txosten oinarriduna eskatuko da, Abokatu Elkargoaren irizpena abokatuarenarekin bat datorrenetan. Txosten hori sei eguneko epean eman beharko da.*

Kexa izapidetzean, legearen eskakizun horiek guztiak nola bete ziren argitze aldera, erakunde hau Gipuzkoako Abokatu Elkargoari zuzendu zitzaion laguntza eske, aurrekarien ataleko 7. puntuan hitzez hitz azaltzen den eran, horren inguruko informazioa eman ziezagun. Azkenean, beste errekerimendu bat egin eta gero elkargoak erantzun zigunean, dekanaren urriaren 15eko gutun baten bidez, eskatutako informazioa ez emateaz gainera, zeuden agiri guztiak espedientearekin batera helarazi zizkigutela azpimarratuta, isiltasunerako eman zitzaigun azalpena izan zen guk ez genuela datu edo txosten gehiagorik eskatu horren inguruan. Azken baieztapen hori, gure idazkia irakurriz gero ondorioztatzen denez, errealitatearekin bat ez zetorrela albo batera utzita, atera behar dugun ondorioa da elkargoaren jarduera, preskripzioa eragiteaz gain, ez zela zuzena izan beste bi alderditan. Hona hemen alderdi horiek:



- a) Kexaren sustatzaileak doako justiziaren onura eskuratu zuen istripua izaniko kamioi batek berarekin hartutako kontratuz kanpoko erantzukizun zibila bi aseguru etxeri erreklamatzeko. Horretarako esleituriko abokatuak erantzukizun hori bi azalpenetan banandu zuen; lehen azalpena, ikusi dugunez, delako ibilgailuak baratzean eginiko kalteei zegokien.

Espedientearen arabera, abokatuak, kalteei 1.000 euroko balioa eman eta gero, eta, ordain hori eskatzeko, epaiz kanpoko erreklamazioa egin eta gero, zegokion akzio judizialak preskriba zezan utzi zuen horren inguruko auzi-eskerik jarri gabe. Salaketa jarri zitzaion horregatik, eta, azalpen horren harira erreklamazio judizialik egin ez izana onartzen duen arren, ez du, ordea, hori justifikatzeko alegaziorik aurkezten; elkargoak ere ez ditu, bestalde, kalte materialak aipatzen 2008ko apirilaren 7an hartu zuen erabakian akzioaren funtsik ezaz diharduenean.

Horrenbestez, elkargoak salaketa artxibatzeko erabakiak arrazoiketarik ezaren akatsa du, puntu horri dagokionez ez baitu ematen daturik eta arrazoirik sostengatzeko salaketaren salatutako abokatuak bere zeregin profesionala bete zuelako baieztapena.

- b) Abokatuak aseguru etxeei egozten zien erantzukizunaren beste azalpena bezeroaren osasunari eragindako kaltea zen, lehen ere ikusi dugunez. Horri dagokionez, 2008ko apirilaren 7ko erabakiak, bai, arrazoiak ematen ditu esleitutako zeregin profesionala zuzen egin zela baieztatuz, nahiz eta abokatuak ez zuen kalte horren inguruko erreklamazio judizialik egin. Horren inguruan, abokatuaren alegazioak kontuan hartzen ditu; hain zuzen, eskatu arren, bezeroak ez zuen eman egin zitekeen auzi-eskea funtsatzeko aski zen txosten medikorik. Abokatuak, hain zuzen ere, aditzera eman zuen esku artean zituen agiriak aski ez zirela kamioiaren istripuaren eta salatzaileak nozitzen omen zituen ondorio psikologikoen arteko kausaltasun lotura frogatzeko.

Alabaina, arrazoiketa hori ordenamenduarekin bat etortzeko, funtsik ez izate horrek egiaz salbuetsi behar zuen abokatuak bere bezeroa auzitegien aurrean defendatzetik, eta hori, legearen arabera, Doako Justiziaren Batzordeak funtsik ez zegoela erabakiz gero baino ez da posible, lehen ere ikusi dugunez. Aitzitik, ez espedientetik, ez elkargoak edo batzordeak berak eskuratutako informaziotik, ez da ondorioztatzen halako prozedurarik egin zenik, eta Gobernu Batzarraren erabakiak ere ez du daturik edo arrazoirik ematen, salatutako abokatuaren iritziaz gain, frogabideak auzi-eskea funtsatzeko egiaz aski ez zirela aldezteko. Erabaki horretatik, hala eta guztiz ere, ondorioztatzen da elkargoak uste zuela





salatutako abokatuak ez zuela auzi-eskea aurkezteko betebeharririk. Balioztapen hori egiteak albo batera uzten du Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legeak horri dagokionez profesionali ezartzen dien betebeharra, eta, horrenbestez, ezin da balioztapen hori oinarritu elkargoak bere kideen jokabidea deontologiaren aldetik epaitzeko dituen ahalmenetan, ahalmen horiek betiere legearekin bat erabili behar direlako, lehen ere azaldu dugunez.

Orain arte azaldu den guztitik ateratzen den ondorioa da kexa izapidetzean hainbat huts larri egin zirela, eta huts horiek, gure aburuz, indargabetu egin zituztela hala deontologiako kontrolaren sistema nola doako laguntza juridikoaren zerbitzuaren kalitaterako bermeak. Gure aukera pertsonen eskubideak ahalik eta gehiena sustatzea denez, gure betebeharra da hori agerian jartzea, halako zerbait berriz gertatzeko aukerak murrizten laguntze aldera, etorkizuneko salatazaileei ez ezik, erreklamazioen bidez jarduera egokia zalantzan jartzen zaien profesionali ere kalterik eragitea saihestearren.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

## **28/2008 GOMENDIOA, abenduaren 9koa, Gipuzkoako Abokatu Elkargoari egina**

1. Gipuzkoako Abokatu Elkarteak ez zuen zuzen jokatu, salaketa lehen unetik -erantzukizun zibilaren ikuspuntutik izapidetzeaz gain- deontologiaren aldetik izapidetu ez zuelako; horrek eragin zuen diziplinazko erantzukizunek, halakorik baldin bazegoen, preskriba zezaten. Aurrerantzean, kide baten jarduera profesionalari buruz jasotzen duen salaketa oro arduraz bi ikuspegietatik azter dadila gomendatzen dugu.
2. Elkargoaren Gobernu Batzarrak bere 2008ko apirilaren 7ko Akordioan egin zuen adierazpena —salatutako abokatuak bere zeregin profesionala bete egin zuela dioenean— ez dago inola ere arrazoituta, kalte materialen inguruko auzi-eskea ez aurkezteari dagokionez. Bezeroaren osasunari eragindako kalteengatik erreklamazio judizialik ez aurkezteari dagokionez, bestalde, elkargoaren iritzia da abokatuak ez zuela hori egiteko betebeharririk, esleitu zitzaion defentsaren uziak funtsik ez zuelako, nahiz eta legez horretarako gaitasuna duen organoak funtsik eza aitortu ez zuen eta nahiz eta legean ezarritako prozedura bete ez zen. Horren ondorioz, pentsatu behar dugu Korporazioak salatutakoaren jokaera profesionalari buruz egin





zuen balioztapen deontologikoa ez dagoela behar bezala justifikaturik, eta, hortaz, gomendatu behar diogu, etorkizunean, beharrezkoa den guztia presta dezala Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legean defentsa bideragarria ez denean hura gauzatzetik salbuesteko ezarritakoa betetzen dela kontrolatzeko.

